

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA, SUSTAPENA, ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko martxoaren 6ko erabakia, zeinen bitartez Ekintzaileentzako beken udal programaren 2020ko deialdia onetsi baitzen

BDNS (Identif.): 500528

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> eta Gasteizko Udalaren webgunean <http://www.vitoria-gasteiz.org> kontsulta daitezke.

Lehen. Onuradunak

Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko ekimenak burutzen diharduten eta Vitoria-Gasteizen erroldatuta dauden 18 urtetik gorako pertsona fisikoak, baldin eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergan altan ez badaude eta beren kabuz ekonomia-jarduerarik burutzen ez badute.

Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizko udalerriko ekonomia-jarduera sustatzea, ekintzaileen kulturari lagunduz. Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 9ko erabakiaren bitartez onetsitako oinarri orokorrak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147 zk.), eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 6an egindako aparteko bilkuran onetsitako berariazko oinarriak.

Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza-deialdi honek 83.700,00 euroko zuzkidura du, 2020rako onetsitako udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidaren kontura. Beka bakoitzaren zenbatekoak ezingo ditu kopuru hauek gainditu: 2.500,00 euro, 90 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskabideetan; 1.000,00 euro, gutxieneko puntuazioa (65 puntu) lortzen dutenetan. 66 puntutik 99ra bitartean lortzen dituzten proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie, bekaren zenbatekoa kalkulatzeko.

Argitaratzen delarik, bi epe izango ditu deialdi honek eskabideak aurkezteko:

- Lehen epea, deialdiaren laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2020ko ekainaren 15era artekoa.
- Bigarrena, 2020ko ekainaren 16tik irailaren 30era artekoa.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 17an

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI